


# LAN TA LAN




Errepideak eta gotorlekuak izan ziren Pirinioetako mugan eginiko lan nagusiak. Errepideetan egin beharreko lana kutxa irekitzea izaten zen gehien bat, pikatxoiaz eta palaz, bikoteka ala talde txikietan antolaturik, beti ere soldadu zaindarien begiradapean. Pirinio aldeko neguko eurite eta elurteetan arropa eta oinetako eskasiek ez zituzten lanaldi luze hauek batere arindu.

Bestalde, kutxaren irekitzearekin zer ikusia ez zuten bestelako lanak ere bazeuden, hala nola, sukalde lanak, zurgintza edota Plana Mayor zeritzonarentzako bulegari lanak, guztiak ezinbestekoak eta bertan aritutako prisioneroei bizimodu erosoago emateko aukera eman zietenak.

Igandea zen aisialdirako egun bakarra, familiari idazteko, arroparen edo norbakoaren garbiketarako erabiltzen baitzen. Baino derrigorrezko mezatara joateko eguna ere bazen.



## Testigantzak



### Basilio Herraiz

(BB TT 64, Puteata, Bizkaia)

Guadalajaratik Elizondo aldera joan ginen, Maia-Baztanera; Otsodon, Frantziarako mendatean, hormigoiko gotorlekuak egiten aritu ginen, Frantzia eta Espainia artean. Han lurpean elkartzten ziren hormigoizko gotorlekuak egiten genituen, eta han ere pistak egiten denbora asko eman genuen.



### José García Faya

(BB TT 106, Mieres, Asturias)

Han giltzapeturik gintuzten. Lo egiten genuen, goizean altxatzen ginen, ibaiara eramaten gintuzten, kafe beltza ematen ziguten eta errepedera joan behar genuen, lanera. Batzuk pikatzen aritzen ginen, besteak harria ateratzen eta beste batzuk errepedearen kutxa egiten. Harria aurkitzen genuenean, mazoak ematen zizkiguten eta zuloak egin behar genituen dinamitarekin lehertzeko.



### Sebastián Erdoiza

(BOST 38, Durango, Bizkaia)

Nik, ortusik eta, bueno, kristonak pasaten neban! ortusik eta, oinetakorik ez! Mantie be bai, ta hankan loturik junda naz ni beharrera. Oinetakoak emoten euskuen, baina ortusik gelditzen zana, bertan gelditzen zan. (...) Hotza eiten eben han, mekañuen!



BOST 14ko taldea, Lesakan, 1942  
Lagapena: Angel Domitriani, prisioneroa



BOST 38ko taldea, Aizko Harrian, 1941-1942  
Lagapena: Pedro Garcia eta Antonio Amadorrearen familiak, prisioneroak

## ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINIOAN

### 2. Egur asko, ogi gutxi!

